

2017-2018 PRESTAKUNTZA PLANA PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

“Gorputz espresibo eta koreografikoa: Gorputz Hezkuntzako gelako baliabidea”

Modalitatea: Ikastaroa

Etapak: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Parte-hartzaileak: Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako irakasleak

Deitzailea: Iruñeko ILZ

Justifikazioa:

Ikastaroa Gorputz Hezkuntzako gelarako baliabide gisa eskaintzen da eta gorputz-eskemaren eta -mugimenduaren ezagutzan, begiratzean eta analisisan datza. Horretarako, kontuan hartuko dira gorputz espresiboaren alderdiak eta konposizio-teknikak, komunikazio-tresna gisa gorputzak dituen trebetasunak garatu ahal izateko.

Helburuak:

- Gorputz kontzientzia garatzea.
- Mugimendu espresiboa eta bere alderdiak aberastea.
- Gorputz hizkuntza garbia deskubritzea, aldez aurretik pentsatutako koderik gabea.
- Banakako eta taldekako sormen-, espresio- eta komunikazio-gaitasunak bultzatzeko espazio ziurra eskaintzea.
- Sormen-prozesuak bizitzea, ongi ulertu ahal izateko eta hezkuntza arloan baliabide gisa erabili ahal izateko.

Edukiak:

- Gorputz eskema eta gimnasia kontzientea.
- Gorputz adierazpena: oinarri fisiko eta espresiboak.
- Espresio-mugimenduaren alderdiak.
- Inprobisazio koreografikoa.
- Ikusmenezko hizkuntza eta gorputz hizkuntza: harremana.
- Musika hizkuntza eta gorputz hizkuntza: harremana.

Metodologia: Formakuntza erabat praktikoa izanen da. Metodologia ludikoa, parte-hartzailea eta aktiboa izanen da eta dinamikei eta ariketei buruzko gogoeta ere egingen da.

Alderdi praktikoaz gain, material teorikoa eta bibliografia emanen dira. Kontu teorikoak saioetako dinamiketarik abiatuta sortuko dira.

Hizlaria: Sandra Aguerri Palomar

Atzerriko Hizkuntzako Magisteritzan diplomaduna, Nafarroako Antzerki eskolan Antzezpen ikasketak egin ditu, baita Mar Navarro eta Andrés Hernándezen Sorkuntza-tailerrean ere. Madrilgo Estudio Schinca Rey Juan Carlos unibertsitatearekin batera ematen duen “Gorputz adierazpenaren formakuntzan aditua” titulua ere badu.

Gorputz teknikan, zirkuan eta dantzan formakuntza zabala du eta Nafarroako Antzerki Eskolako aktorea, dantzaria eta irakaslea da.

Arduraduna:

Nora Iriarte Oses. Iruñeko ILZko Bigarren Hezkuntzako aholkularia.

- Telefonoa: 848 430395
- Posta elektronikoa: cap.pamplona.asesoria2@educacion.navarra.es

Tokia: Iruñeko ILZ (Zubiri pintorea kalea, 8)

Datak: urriak 9, 16, 23 eta 30

Ordutegia: 17:30-20:00

Iraupena: 10 ordu

Plaza kopurua: 20

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 15

Izena emateko epea:

Izena emateko azken eguna urriren 4a izanen da.

Esteka honen bitartez egin behar da:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

Hautatzeko irizpideak:

- Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako irakasleak, izen-ematearen hurrenkeran.

Hizkuntza: Gaztelania

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan:
<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- PNTEren urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izeneko egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Aktiboan dauden irakasleek soilik egin dezakete prestakuntza eta haiei baino ez zaie ziurtatuko. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.

